

Arratia Futbol Taldeak maila galdu eta ez dau Bigarren Mailan jokatu

11. orrialdea

Errotarik errota Zeanurin

Maiatzaren 7an izango da Joko Alai alkarteak antolatutako Zeanuriko Erroten XII. Ibilaldia. Ibilbide bi dagoz aukeran: 18 edo 12 kilometrokoak. Ibilbide osoa egiten dabenak 9 errotaren ondotik pasauko dira eta hirutan sartu-urtena egiteko aukerea izango dabe. Ibilaldia 09:00etan hasiko da plazan. 10. orrialdea



Motxilaren umea filma ikusi ahal izango da Dima eta Zeanurin

12. orrialdea


TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

273

2017ko maiatzaren 3a
hamabostekaria
www.begitu.org



Memoria eta Kultura astea Lemoan

Memoria eta Kultura astean, 1936ko gerra, gerraoste eta frankismoaren gaineko berbaldi bi, ekitaldi bat eta mendi ibilaldia egongo dira. Ekitaldiak, Lemoa hartzearen 80. urteurrena dala ekarriko dau gogora.

Kulturari jagokoenean, barriz musikeak izango dau protagonismo nagusia, abesbatzen Udabarriko Kontzertua edo txalaparta tailerra moduko jarduerakaz.

Herri kirolak be izango dabe lekua kulturaren astean. 7. orrialdea

Gure Esku Dagoren herri galdeketea Zeanurin hilaren 7an



Dimako herri galdeketa pasautako lekukoa jaso eban Zeanurik eta "Euskal Herri independente bateko herritara izan gure dozu?" itaunari erantzungo deusie botoa emoten hurreratzen diranak. Zeanuriko Gure Esku Dagoko taldeak egun osorako jarduerak prestatu ditu herritarrek jai giroan bozkatu dagien. Hamasei urteko gorako 1.052 zeanuriztarrek emon ahal izango dabe botoa.

Bozketea 09:00etan hasiko da herriko plazan eta arrastiko 20:00ak arte luzatuko da. Antolatzaileak, hautestontzia zarratu eta ordu erdi ingurura espero dabe egitea emoitzen irakurketea. Maiatzaren 5era arte boto aurreratua emon daiteke alkartearen egoitzan, arrastiko seiretatik zortziretara. 5. orrialdea

LEMOA

Herri seguruago eta irisgarriago izateko aldaketak

Lemoako Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorren erredakzino taldearen eskutik, leku arriskutsuak eta ez irisgarriak identifikatu ditue lemoaztarrak eta ibilbide bat egin eben honeek guztiak *in situ* ikusteko. Ibilbidean, udal ordezkariak, alkatea tartean, teknikariak eta eda-de, interes eta egoera fisiko ugari jentea egon zan.

Tailerretan eta galdetegien bi-dezko herritarren ekarpenetan, konpondu beharreko 24 puntu jaso ziran. Kasu batzuetan, argiak ipintea edo zebrabideak konpondutea nahikoa izango da. Beste batzuetan, auzo osoa eraldatu beharko da. Esate baterako, Arraibi barrizatzeko hiru fase dituan plana dago. Inguruko trafikoa motel-tzeko, BFAk errotonda bat egingo dau. 6. orrialdea

DIMA

Herri osoa inplikauko da ikasleak euskaldun eta eleaniztun izan daitezkan

Dima-Ugarana Herri Ikastetxeak Ikasle Euskaldun Eleaniztunak Proiektua ipini dau martxan, herriko hamasei alkarte edo eragilegaz alkarlanean. Izan be, euren ustez, hizkuntzak ikasteko metodologia guztiz aldatu behar da, euskerearen egoera kontuan hartuta, gizartearen erronkai, eleaniztasuna barne, erantzuteko. Horretarako Hezkuntza Komunitate osoaren inplikazioa behar da. 8. eta 9. orrialdeak

M. Jose zure arropa
94 631 90 08
Galanta
Agirre
Lehendakaria 23
48140 Igorre
galanta@hotmail.es
www.facecook.com/galanta.lenceria

ZEANURI

Ganadu azokea San Isidro egunean

San Isidroetan, maiatzak 15, gure inguruko Ganadu eta Artisanu azokarik garrantzitsuenetakoak 36 urte beteko ditu. Bertara ez bakarrik arratiarrak, Bilbo eta Gasteizko jentea be hurreratzen da, baserri giroan murgiltzeko. Izan be, ganadua ikusi edo erostean gainera baserriko produktu asko saltzean dira han. Ganadurik ederrenak saria izango dabe eta arrastian, idi probak eta giza proba erakustaldiak egongo dira. Jaiak hiru egun lehenago hasiko dira Etxanderak jantza taldearen *Txirrintxanketan* emonaldiagaz. 7. orrialdea

publizidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115



www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri-gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkartea

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak: begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidua makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu behar dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Artez



Gure artean gero eta gitxiago entzuten dogu artez berbea. Persona zentzudunari zein oker ez dagoan edozeri arteza esaten deusagu (artésa, agoskatuta). Batuan, zuzen erabilten da gehienbat. Esate baterako: "Hori gizonari arteza da, e!"; eta "Hartuizu lehenengo bide arteza!". Edo beste era honetara, artezean: "Hemetik artezean joanda topauko dozu autobusa hartzeako geltokia".

ERETXIA

Gazte Akelarrea Igorren, eskerrik asko

Urtailearen 19an egin zuen publiko aurtengo Gazte Akelarrea, Zornotzatik Igorrera egingo zana apirilaren 13tik 15era. Apurka-apurka herria etorkonerako prestatzen hasi zuen. Alde batetik egitaraua eta guneak lotzean hasi ziran eta bestetik batzuen urduritasuna eta oinarri bako zurrumuruak zabaldu ziran herrian zehar.

Gitxinaka-gitxinaka ekimenak ikutuko ebazan guneen auzokideakaz, jaubeakaz, alboko komertzioakaz... berba egin zuen, Akelarrean bertan arazorik ez egoteko.

Korrika herritik paseteagaz batera, Akelarrea baino astebete lehenago, karpenteria montajeagaz itxurea hartzean hasi zuen. Astelehenean, guneetako muntaketa guztiaz arduratutako jente mobimentua igartzen hasi zuen, Arratiako jentiaz gainera Euskal Herri osoko gazteak batuz; baita gelditzeko etorri zuen eguzkiaren presentzia be.

Eguenerako prest egoan dana. Goizean goiz martxearen ibilbidea markau eta Zornotzako konsignak autobusen joan etorriagaz bete ziran. Herria itxaroten egoan, gaua hasita, martxan etozan ia mila gazteak ailegau ziranerako. Zuzien argitan gazteak Igorrera heldu ziran suaren bueltan Gazte Akelarrea hasi zuen. Antzerkia, musika eta jantzak; sorginak, akerrak eta magia; ekitaldi parte hartzaileak biztu eban "sugarren dantza" gazte independentisten artean.

Ondorengo egun bietan mahai-inguru, tailer, berbaldi, kale-animazio, kirol eta kontzertuez gainera, lagunak (barriak eta aspaldi ikusi bakoak), ekimena aurrera eramateko behar izan ziran milaka txandalar boluntarioak, mosuak, laztanak, besarkadak, ilusinoak, eta egunak topera aprobetxetarako.

GAZTE AKELARREKO ARRATIAKO ANTOLATZAILEAK

dakarren nekea ikusi ziran herriko kaleetan zehar. Amaitzeko, domekan jentea Gernikako Aberri Eguna bidaltzeagaz batera, desmontajeagaz hasi ginan karpa handitik dutxetara, akanpalekutik jantokira, Kobazulotik, Akeitatik eta herrian zehar sortu genduzan txoko guztietatik pasauz. Konturatu orduko herria normaltasunera itzuli genduan.

Igorreko herritarrak eta hiru egunetan zehar Igorre okupatu ebena, sentipen goxo batez itxi eban Gazte Akelarrea. Agerian dago, gaur egun, holango ekimen bat aurrera eramateko gazteok daukagun indarra ikusita, edo zertarako gai garala, ez gaituala ezerrek bildurtzen eta Euskal Herri hobe baten alde burrukatuko dogu egunero.

Behin ekimena amaituta, testu hasieran aitaturako herritarrak eskerrak emon euskuezan egindako lanagaitik eta antolakuntzeagaitik. Antolakuntzearen eta Arratiako gazteon izenean, eskerrik beroenak eurei be.

Beti gogoratuko dogu herrian 3000 gaztetik gora izan genduaneko esperientzia.

Beti gogoratuko dogu (onetik eta txarretik) ikasitakoa.

Beti gogoratuko dogu behin-goarren eguraldia lagun izan genduala.

Beti gogoratuko dogu Igorre euskaldun askoren mapan kokatu genduala.

Beti gogoratuko dogu gazteak herrira ekarritako Gazte Akelarrea.

Beti gogoratuko dogu jente askoren alerik eta herritarren ulermenik eta pazientziarik barik hau ezinezkoa izango zala. Hori dala eta, eskerrik asko Akelarrean su txikiak bizten lagundu dozuen guztioi.

LUMATUTEN



ALASNE ARTETXE

Poz eta negar iturria

Umetan hainbat betebeharrak eta ardura izaten genduzan. Txintik esan barik beteten neban horreetako bat iturrira joatearena zan.

Ur-jarroa edo ur-kantinatxo hartu eta solorik solo auzoko beste ume-gazteak batera pozozik ur-iturrira hurbiltzen ginan, egunean bizpahirutan.

Gure auzokook Beratzuko iturrira joaten ginan. Guretzat iturririk dotoreena zan, duda barik; errepideko behealdean, erreka bazterrean... zapaburuak, kukufrakak, suge-bedarrak, patana, harritxokorrak...

Bertan egotaldi itzelak emoten genduzan olgetan zein berbetan.

Bertan "iturri jakintsuenetatik" edan egiten genduan.

Bertan "maistra-maisu" ziran harengandik edan genduzan hainbat kontu aberats.

Bertan ez zan inoz inor mespretxatu, mindu, baztertu... desaidarik ez!

Eurak ziran gure "iturri" fidagari,

gure "ur" pozgarri.

Bertan gutako bakotxa zan "uraren iturri".

Egia da askotan berandutxo egiten jakula etxera heldu orduko. Baina iturririk ura edan beharra egoan.

Egia da aita-amak (aitita-amamak gitxitxoago) gedar baten baino gehiagotan egin euskuela jarroa edo kantinatxo... erdi hutsik egoalako...
Ur-tantak... lorak bizkortuten ebezan

Ur-tantak... egarria asetzeko balio eben

Ur-tantak... gu geu bustiteko balio eben.

Barrero iturrira... zer erremedio!

Kontrolik bako abiaduran bizigarra sasoi honetan, ostera, iturrira joatearena denpora galtze hutsa iruditzen jaku, are gehiago, lelokeria galanta.

Ez dot hala danik uste, ba!

Edozein herritan, edozein auzotan... iturria egoan, eta ur-iturri horren inguruan biltzean zan jentea beharrerako zein berbatarako. Bizia emoten eban, auzolana bultzatzen eban, bakardadea uxatzen eban...

Ludotekean, gaztetxean, zahar-egoitzen, tabernen... funtzinoa beteten eban, jakina.

Gaur egun, barriz, ur-iturririk ez dago... Batzuk hiltzen itxi doguz, beste batzuk... baztertu egin doguz.

Gaur egungo umeak ez doaz plazako eta auzoetako iturrietara ura edaten, tabernetan eskatzen dabe "basu bat ur".

Gaur egungo umeak zer egingo leukie "tabernarik" ez balego?

Gaur egungo umeak zer egingo leukie "edateko urik" eukiko ez balebe?

ZERTZEAN



IRATI ASTONDOA

1

Hamahiru urtegez institutuan egin ginen oso lagun bere ondoan zenbet momentu eta zenbat alaitasun bere onena emonaz beti banatuz hainbat maitasun zapaldu dauen leku guztietan bihurtu jaku txapeldun.

2

Bere gogoia beti izan da aktorea izatea eta horrez gain dekon ahalmena lotsa barik aurkeztea jantzan abila, zunban artista hori da bere dotea gure dauena in ahal dauela egin eta sinistea.

3

Bizitza dana aldatu eutson gau hartan notizi txarrak ez ziren izin inontzako be oso momentu edarrak apurka-apurka altxatu jakun barrero piztuz zuztarrak ezin dan leku guztietatik ateraz bere indarrak.

4

Gorri jantzita dana emoten da taldearen babesa konbidentzia egin izan dau positibo ta erreza konkistadore bihurtutea zalako bere promesa ta apurka-apurka badoa lortzen bere anaian ametsa.

5

Hiru-lau proba irabazite demostratu dau hainbeste ago zabalik itxi baita be beste makine bat jente ikusi dogu kapaza dala eta dagoela fuerte ikurrin handi hori Igozerra eskuetan ekarri arte.

6

Programa horretan berak jarri dau danon partez umorea erakutsiez errespetua eta dekon adorea bera da gure favoritoa onena, ezin hobea dude barik zu zara Ismael gure konkistadorea.

BEGI TXINDORRA

Hogeigarrenez zeharkatu barri dau Korrikak Euskal Herria. Milaka zoro zoragarrik hartu dabez bideak AEK-ren furgonearen atzetik, eta lekukoak merezitako urte biko atsedena hartuko dau. Baina hau ez da gelditzen, Korrika 21a dogu jomugan eta arratiar batzuk erronka bat luzatu gura deutsegu gure herrikideai: Korrika 21eko kilometro guztietan arratiar bat (gitxienez) egotea. Horretarako eta apurka-apurka prestaketa beharrakaz hasteko, prest dagozanak arratia.korrika@gmail.com helbidera mezu bat bidaltzea eskertuko geunke.

Tipi-tapa, tipi-tapa...

Illart Gumuzio



Gorosti
LORAZAINTZA
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igozerra
Tfnoa: 94 631 80 04

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGOZERRA

ZEANURI

Zeanuriztarrak herri galdeketa parte hartzerara deitu ditue

Maiatzaren 7an, Gure Esku Dago ekimenak herri galdeketa antolatu dau 50 herritan, tartean Zeanurin. Zeanuriko taldeak, Gaure Eskuetan izena hartu dauanak, Erabakitze Eskubidea gauzatera deitu dauz herritarrak eta herri galdeketa parte hartzerara. Hamasei urtetik gorako 1.052 biztanle dagoz Zeanurin, 529 gizon eta 528 andra eta herri galdeketa danak botoa emotea espero dabe Gaure Eskuetan taldekoak.

Erredakzioa

Plazan egongo dira hautetsontzia eta boto-papelak, "Euskal Herri independente bateko herritarra izan gure dozu?" itaunari Bai, Ez edo Zuri erantzun ahal izateko. Goizeko 09:00etatik iluntzeko 20:00etara egongo da bozka mahaia eta 20:30ak aldera emoitzen barri emotea espero dabe antolatzaileak.

Plaza jai eta aldarrikapen gune bihurtuko da egun horretan. Ekintzaileen arabera, gizarte demokratiko baten herri galdeketa da tresnarik garrantzitsuen herriaren eretxia ezetuteko, eta gehien borondateagaz bat datozen ebazteko hartzeko. Hori

dala-eta, herri galdeketa jai giroan egongo da.

Boto mahaia eta jai

Egun osoan zehar ekitaldiak egongo dira plazan, goizean hasi eta gaubera arte. 11:00etan, umeentzako tailerrak egongo dira: margoak, keramika, jolasak eta animazioa, beste batzuen artean. Ondoren, 12:30ean, barauskarria egongo da eta Arkaitz Estiballes eta Beñat Ugartetxea bertsolariak bertso-saiotxo bat eskeiniko dabe.

Ekitaldi Nagusia 13:00etan izango da. Han, taldeak orain arte egindakoaren barri eta botoa zelan emon azalduko dabe. Eta Areatzari pasauko deusie le-

kukoa. Zemendian, Dimak, lekuko moduan edo, hautetsontzi bat pasau eutsan Zeanuriri eta orain Zeanurik, Arratian hurrengo herri galdeketa egingo dauan herriari, hau da Areatzari, pasauko deutso.

Ekitaldiaren ostean, Herri Kirok egongo dira eta 14:30ean herri bazkaria. Bertan parte hartzeako txartelak tabernetan egongo dira salgai "sano prezio herrikoian" maiatzaren 5era arte. Bazkalostean Gontzal Mendibilen kantaldia eta herriko jantzarien jantaldia egongo dira.

Arrastiko 18:00etan, pelota partida Plazako frontoian eta 19:00etan txokolatea. Bozketan mahaia 20:00etan zarratuko da eta kontaketa egin ostean,



emoitzen irakurketa eta amaiera ekitaldia egongo dira.

Aurretik kanpaina

Dimatik lekukoa jaso eta gero, herri galdeketa prestatzeko kanpainera ekin eutsien Zeanuriko Gure Esku Dago taldekoak. Holan, apirilaren 8an, 1979 eta 2017 artean izandako zinegotzi eta alkateak adierazpen ekitaldia egin eben, herri galdeketa atxikimendua erakusteko.

Atzen asteetan, botoa emotearen gaineko zehaztasunak jasoten dauan diptiko bat zabaldu dabe etxe guztietan. Bertan azaltzen da "zer dan Gaure Eskuetan, helburua, zer egin behar dogun, zergaitik bozkatu behar dan, zein dan galderea... eta erderazko laburpentxo bat be ipini dogu jente guztiak jakin dagian".

Apirilaren 24tik 28ra eta maiatzaren 1etik 5era, botoa emoteko aukerea be badago, maiatzaren 7an botoa emon ezin izango dabenentzat. Horretarako, hautetsontzia, Gaure Eskuetan alkatearen egoitzan (San Isidro kalea, 11) egongo da 18:00etatik 20:00etara. Gaixo edo ezinduk telefonoz deitu ezker, antolatzaileak, egun horretan, 20:00etatik aurrera hautetsontzia hartu eta etxera joango jakie, herri galdeketa inor ez daiten geratu botoa emoteko aukera barik.

Parte hartze handia espero dau Zeanuriko taldeak. "Jenteak ilusioa dauka eta herri osoa inplikatu da, bakotzak ahal dauan mailan" dinoe. Atzen finean, ekimena idea politikoak baino zerbaist zabalagoa dala dinoe; erabakitze eskubidearen aldarria, hain zuzen be.

IGORRE

Red Electricak goi-tensinoko linearen trazadua aldatutea espero dau Udalak

Beinat Anzola Igorreko alkatearen ustetan, Gueñes-Ixaso goi-tensinoko linearen lanak atzeratzeko eta Igorretik daukan trazadua aldatu eta aldentzeko aukera asko dagoz.



Igorren udaletxe aurrean martian egin zan konzentrazioa.

Erredakzioa

Red Electrica Españolak (REE) adierazo eutsan Udalar, Bizkaiko Foru Aldundiak eskatutako aldake-

tak egingo dituala; eta BFAk auzokoen alegazioan adierazotako trazadu-proposamena dala egokiena jakinarazo deutso REEri.

Auzokoak aurkeztutako alegazi-

noaren oinarrietako batek, oraingo trazaduak, abifaunari, batez be sai zuriari, kalte egin dekiola dino. Hori dala eta, linea iparralderantz mobidutea proposatzen dabe auzokoak, sai zuriak habiak egiten dituan bi puntuetatik aldentzeko. Trazadu hau harrobitik eta Aparioko zaborregitik be urruntzen da eta inguru horretan, sai zuriarena baino babes maila txikiagoa daukien beste hegazi harrapakari batzuk be badagoz.

Igorreko trazadua iparraldera mobidu ezker, etxeetatik urrunago pasauko litzateke goi-tensinoko linea eta hau litzateke "kalte gutxi" egingo leuken aukerea. "Ez dauka itxura txarrik. Honek ez dau bertan behera itxiko proiektu guztia, baina akaso atzeratuko dau" dino alkateak.



ARRATIA

Andren Jabekuntza Eskolako topaketetarako izena emoteko epea zabalik

Erredakzioa

Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako ikasturte amaierako topaketetan parte hartzeako izena emoteko epea zabalik dago. Topaketa bi izango dira: bata Arratia mailakoa eta bestea Bizkaikoa. Arratia mailakoa, maiatzaren 27an izango da, Arantzazun, eta izena hilaren 2tik 15era emon daiteke udaletxeetan edo Arratiako Udalen Mankomunitatean. Bizkaiko Emakumeentzako Jabekuntza Eskolen topaketan be hartuko dau parte Arratiak. Hau, bagilaren 3an izango da Durangon eta bertan parte hartzeako izena maiatzaren 5etik 19ra emon daiteke AUMn.

Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako Topaketan, datuak jakitera emon eta ikasturtearen balantzea egingo

dabe partaideak, hurrengo ikasturterako helburuak eta helburuok lortutako bideak definiduteko.

Maiatzaren 27an izango da, zapatuz, 10:00etatik 13:00etara Arantzazuko Kultur Gunean.

Zortzi eskoletako jaia

Durango topaketea barriz, Abadiño, Arratia, Durango, Getxo, Elorrio, Ermua, Ondarroa eta Basauriko andrentzako jabekuntza eskolak antolatuko dabe. "Gurekin beldurrak jai" lelopean, jaietan, indarkeria matxisteari aurre egiteko dagozan estrategia feministak landuko dira. Horretarako, 10:30ean, mahai-ingurua antolatuko dabe, Miren Guillo, Las Farrukas eta Eragile Moreak-en partaidetxeagaz. 13:00etan, Rebeca Lane-ren kontzertua egongo da.

DIMA

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Eskulangintza Azokea

Erredakzioa

Ganadu azoken sasoi betebeteen, Dimako Udalak eta abeltzain alkarrean Nekazaritza, Abeltzaintza eta Eskulangintza Azokea antolatu dabe maiatzaren 14rako, domekea. Ingururik hurrenetako ganadua, hau da Dimakoa bertakoa, egongo da han. Ehundaka ahuntz, behi eta behor eta 40 bat artisauen lanak ikusi

ahal izango dira bertan, jai giro ederrean.



IGORRE

San Juan auzoko transformadorearen gaineko kezka azaldu dabe auzotar batzuek

Erredakzioa

Erdi tensinoa behe tensino bihurtzeko transformadore baten kokapenaz kejuak dira San Juan auzuneko auzotar batzuk. Izan be, transformadorea euren etxetik hur ipiniko dabe eta osunean eragin leikezan kalteen bildur dira. Zarata eta transformadoreak sortuko dituan eremu elektromagnetikoen gaineko informazio ezaz be kejuak ziran.

Alkatearen arabera barriz, ho-

lango transformadoreak "herri barruan" eta "urbanizazio guztietan" egoten dira eta Udalak, transformadorea ipinteko, legeak marketan dituan distantziak gordetzen dauzan lur zati bat erosi ebalu dino, auzotarra lagunduteko asmoz. Izan be, Iberdrolak transformadorea ipinteko eskatu eutsen eta auzotar batzuek udaletxera jo eben lur saila erosteko laguntza eskatuten. Udalak diru kopuru batera arteko laguntza emongo deusela agindu eutsen.

LEMOA

Leku ilunak eta ez irisgarriak *in situ* aztertzeako ibilbidea egin dabe

Erredakzioa

Aprilaren 27an, herritarrak, alkateak, zinegotzi eta teknikariak, AUMko Bardintasan teknikariak eta HAPOko talde erredaktoreko prozesu parte hartzaileen arduraduna dan Irune Virgelek ibilbidea bat egin eben herritik leku arriskuak edo bertatik ibilteko gaxak diranak bertatik ikusteko. Aurrezdik egindako tailerretan edo erantzundako galdetegian emon eben lemoztarrak leku horreen barri eta arriskuak murrizteko eta irisgarritasuna hobetuteko ekarpenak egin ebezan.

Holan, herrian zeharreko 24 puntutako ibilbidea sortu zan. Ibilbidearen helburua jentteagaz batera, irisgarritasun edo segurtasun arazoak sortzean dabezan lekuak aztertzea eta balioztatzea izan zan. Erdigunekoak baino ez ziran aztertu egun horretan, eta besteak, hurrengo baten autoz joanda aztertzeako geratu ziran.

Partaidetza ugaria

Irune Virgelek, partaidetxearen ugaritasuna azpimarratu gura izan eban. "Ibilbidea egiten, karroan ume txiker bat erorian ama bat, txirindulari bat eta edade guztietako jenttea egon da. Tailerretan, arlo publiko eta pribaduko jenttea egon da, edade guztietako andrak eta gizonak. Galdetegi bidez be ekarpen asko jaso dira" dino.

AREATZA

III. Ganadu eta Artisau Azokea Karpoko jaietan

**Erredakzioa**

Baserritar giroko Karpoko jaiak, sasoi baten galduta egon ziran baina orain dala urte batzuk billaroztarrak errepekurau gura izan ebezan eta ganadu azoka bat egiten be hasi ziran. Aurten hirugarren edizino izango da. Maiatzaren 6 eta 7an izango dira Karpoko jaiak, eta ermitara igoera edo hain billaroztarrak diran erraldoiak ez dira faltauko.

**Arraibi.****Udalaren eskumena**

Ugaria izan da parte hartu dauan jenttea eta ugaria baita be arrisku perzeptzioa. Seinalautako 24 puntuetatik erdiak inguru konpondutea ez dala Udalaren kompetentzia dino Virgelek. Izan be, horretako batzuk, kamino orokorreko trafiko segurtasunari dagoz lotuta eta Foru Aldundiari jagoko konpondutea.

Udalari jagokozanak, gehienak errez egitekoak dirala dinoe, baina Arraibi osoa berregiteko plan bat be badagoala esan eban Saioa Elejebarrieta alkateak. Hiru fasetan egingo da eta norabide bateko trafikoa kenduko dabe hirugarren fasean. Horretarako, Foru Aldundiak errotonda bat egin behar dau lehenengotik.

DIMA

Saneamentu obretarako kontratazioa

Erredakzioa

Morga enpresakoak Diman las-ter hasiko dan saneamentuaren obrarako herriko langabetu bat kontratatukoak dira. Behar horretan interesa daukien herritarrak udaletxean emon behar dabe izena eta telefonoa maiatzaren 5a baino lehen. Udalak heldu arazoko deusez datuok Morga enpresakoai.

Egur sorten zozketea

Beste alde batetik, Dimako Udalak dei egiten deutse egur sorten zozketan parte hartu gura daben herritarri. Izena emoteko epea zabalik dago maiatzaren 12ra arte eta hamahiru egur sorta esleituko dira, 200 euroko prezioan.

Egur sorten adjudikazioan lehentasuna izango dabe, igaz adjudikazio barik geratu ziranak.

DIMA

Dantzari Txiki Eguna

Erredakzioa

Dimako Gazte Barri Dantza Taldeak antolatuta, XIX. Dantzari Txiki Eguna ospatuko dabe Diman maiatzaren 14ean. Bertan, Dimako jantziariakaz batera, Igorre, Galdakao, Durango eta Beasaingo euskal jantza taldeak egongo dira eguna ospatuten.

Ume guztiak batu ondoren, 11:30ean hasiko da jai kalejira batez, 13:00etan izango da jantza emonaldia eta ondoren jantziariakaz bazkaria eta erromeria egongo da.

Gazte Barri Dantza Taldea 2008an sortu zan jantziariakaz zaletasuna eukien guraso batzuen eskutik, ume eta gazteen artean zaletasun hori bizteko helburuagaz. Dantzari Txiki Egunagaz, umeak ikasturtean zehar ikasitakoa jentteurrean erakustea, beste ume jantziari batzuek hartu-emonak bultzatzea, herrian jantza giroa sortzea eta, batez be, "ondo pase-tea" da.

Euskal jantza talde bi Diman

Diman euskal jantza talde bi dagoz: umeentzako Gazte Barri Dantza Taldea eta, orain urtebete inguru sortutako helduen taldea. Gazte Barri Dantza Taldean 31 umek ikasten dabez euskal jantzak.

LEMOA

Memoria eta Kultura Astea, maiatzaren 8tik 14ra

Memoria eta Kultura astean, Memoria Historikoaren gaineko berbaldi bi, ekitaldi bat eta mendi ibilaldia egongo dira.



Igazko Lemoatxeko batailearen antzezpeneren irudia.

Erredakzioa

Mikel Diegoren berbaldiak emongo deutso hasikerea asteari, Lemoako herritarren eta epaitegi frankisten gaiari atariko eginenez. Maiatzaren 8an izango da 19:00etan. Bigarren berbaldia Aritz Ipiñak egingo dau, hilaren 11n, 18:00etan, 1936 eta 1975 arteko euskal erbestealdia gaitzat hartuta. Biak Jubiladuen etxe gaineko aretoan izango dira.

Memoriari lotutako ekitaldi nagusia zapatuan izango da, hilaren 13an, iluntzeko 20:00etan kiroldegian. Lemoa hartzearen 80. urteurreneko ekitaldian, ikuspegi memorialistikotik, arlo artistiko eta soziala landuko da. Izan be, herriko eta inguruko artistakaz batera, bonbardaketearen inguruko emonaldia egingo dabe. Felipe Murillo da zuzendari artistikoa eta Gotzon Barandiaran gidoigilea.

Gerra eszenalekueetatik mendi ibilaldia antolatu dau Udalak domekarako. 10:30ean, Atxeta plazan batu eta Lemoatxera igoko

dira lemoaztarrak. Han, bonbardaketearen oroigarria inaugurauko dau Udalak eta gorpuak agertu diran lekuetan lora sortak ipiniko ditue.

Memoriari lotutako ekitaldiez gainera, musikeak be protagonismo handia hartuko dau kultura astean. Holan, martitzenean, hilak 9, *Maddi eta txalaparta* 4 eta 10 urte bitarteko umeentzako ipuin musikatu egongo da 17:30ean ludotekan eta hurrengo egunean gurasoentzako txalaparta tailerra eskolako aterpean. Eguenean, hilak 11, Arratia Musika Eskolako ikasleak kontzertua eskeiniko dabe eleizan, 19:30ean eta barikuan, Unai Ormaetxea bertsolari eta idazlea eta Mikel Inunziaga "Inun" abeslariaren errezitaldi-kantaldia antolatu dau Udalak Elizondoko Kulturugunean. Ondoren, DBHko ikasleak gaubela egingo dabe. Ekintza hau ikastetxeak, ikastetxeko Euskera Batzordeak eta Lemoako Udalak antolatu dabe. Egitarau musikal oparo hau Lemoako Abesbatzen

alkarteak antolatutako Udabarriko kontzertuak zarratuko dau. Han, Amorebieta-Etxanoko Xuxurlariak Abesbatza, Bilboko Emays korua eta Lemoako abesbatza entzuteko aukerea egongo da.

Amaitzeko, herri kirol erakustaldia eta herritarren arteko trontza txapelketea egongo dira domekan, hilak 14, Elizondon, eguerdiko 13:00etatik aurrera.

Aste osoan zehar eskolan, ikasleek lanen erakusketak, txalaparta tailerra eta beste kultur ekintzak egongo dira. Udal Liburutegia be eskolara hurreratuko da umeak liburuak eskuragarriago izan dagiezan.

Egitaraua
Maiatzak 8, astelehena

19:00etan, Udalak antolatuta, Mikel Diego Barajasen berbaldia "Los vecinos de Lemoa ante los tribunales franquistas: una introducción". Jubiladuen etxe gaineko aretoan.

Maiatzak 9, martitzena

17:30ean, *Maddi eta txalaparta* ipuin musikatu ludotekan.

Maiatzak 10, eguaztena

17:00etan, JB Eguzkitza Meabe Ikastetxeko Guraso Elkartek antolatuta, gurasoentzako txalaparta tailerra eskolako aterpean.

Maiatzak 11, eguena

18:00etan, Udalak antolatuta Aritz Ipiñaren berbaldia: "Huyendo de la guerra y de la represión franquista: el exilio vasco 1936-1975" Jubiladuen etxe gaineko aretoan.

19:30ean, Arratia Musika Eskolako ikasleek kontzertua eleizan.

Maiatzak 12, barikua

19:00etan, Udalak antolatuta, Unai Ormaetxea bertsolari eta idazlea eta Mikel Inunziaga "Inun" abeslariaren errezitaldi-kantaldia Elizondoko Kulturugunean. DBHko ikasleek gaubela, JB Eguzkitza Meabe Ikastetxea, Ikastetxeko Euskera Batzordea eta Lemoako Udalak antolatuta.

Maiatzak 13, zapatua

20:00etan, Udalak antolatuta, Lemoa hartzearen 80. urteurrena kiroldegian.

20:00etan, Lemoako Abesbatzen Elkartek antolatuta, Udabarriko kontzertua. Xuxurlariak Abesbatza (Amorebieta-Etxano), Coro de Emays (Bilbo) eta Lemoako Abesbatzen Elkartea. Eleizan.

Maiatzak 14, domekea

10:30ean, Lemoako Udalak antolatuta, Memoria Historikoaren inguruko mendi ibilbidea. 13:00etan, Mendieta Herri Kirol Taldeak antolatuta, herri kirol erakustaldia eta herritarren arteko trontza txapelketea Elizondon.

ZEANURI

Ganadu azokea eta baserri giroa nagusi sanisidroetan

Inguruko ganadu azokarik entzutetsuenak 36 urte beteko ditu aurten. Musikea eta giro ona be ez dira faltauko.

Erredakzioa

Ganadu azoka ikusgarria eta baserri munduaren jai jentetsua ospatuko da Zeanurin San Isidro egunean. Aiko hemen egitaraua:

Maiatzak 12, barikua

21:00etan, Etxanderak jantza taldearen *Txirrintxanketan* emonaldia.

Maiatzak 13, zapatua

11:00etan, Zeanuriko I. Olinpiadak. Jarraian: Umeen patin eta patinete karrera.

14:30ean, herri bazkaria.

20:00etan, Zeanuriko Abesbatzen 20. urteurrena ospatzeko kontzertua Andra Mari Parrokian. Parte hartzaileak: Korua, Esti eta Olatz, Zeanuriko Txistulariak, bertsolariak, organo jolea eta bibolin jolea.

22:30ean, Akerbeltzegaz erromeria.

Maiatzak 14, domekea

18:00etan, Bizkaiko Herriarteko Pelota Txapelketea.

Maiatzak 15, astelehena

10:00etan, Abere, Artisau eta Nekazal Produktuen Azokearen XXXVI. edizinoa. Azokearen barne hurrengo ekintzak burutuko dira: ardiak eraistea, gaztaigintzea, zeramika tailerra eta garagardo dastaketea.

11:30ean, mezea, San Isidro eleizan.

12:30ean, Arrikibar jantza taldearen saioa Ibarreta plazan.

13:30ean, ganaduen sari banaketea plazan.

17:30ean, Harriti taldearen erakustaldia eta idi-probak.

Zeanuriko pintura taileraren erakusteketea egongo da Osoko Batzarretako gelan: maiatzaren 13 eta 14an eguerdian eta 15ean goizean zehar.

"Txirrintxanketan Etxanderak jantzan"

Irati Urien


Emonaldi barria prest dauka Etxanderak jantza taldeak daborduko: *Txirrintxanketan*. San Isidroak atakia, Zeanurikoak maiatzaren 12an egingo dabe jantzan herriko frontoian, 21:00etan. Ekitaldia jantza hutsekoa izan ez daiten herriko talde batzukaz konbinazio bat egin gura izan dabe Etxanderakekoak. Holan ba, zortzi izango dira egingo dabezan jantzak, sorpresa ugarigaz tartean. Jantzari profesionalak ez dirala baina borondaterik onenagaz eta ilusinoagaz egiten dabela dinoe; betiko jantzak ardatz lez hartu, honeek apaindu eta euren koreografiak sortuten dabez, "beti be oinarian geurea ahaztu barik".

Pausu batzuk ikasi guran, helburu handiegi barik hasi ziran zeanuriztarak, Arratiako jotea eta erromerietan egiteko jantzak esaterako. Plazan hasi ziran ensaietan lehenengo, eta herriko gimnasioan gero, 2012an. Gustura egoazala eretxi eutsien eta emonaldi bat egitea pentsau eben, baita ha prestatu be. 2013ko Zeanuriko Txistularien 45. urteurreneko ekitaldian lekua egin eutseen jantzari eta pozik gelditu ziran euki eben harrereagaz. Egiten ebena sinistu eta 2015ean, taldearen aurkezpen ofiziala egin eben Zeanuriko Andra Mari jaietan, emonaldi horretarako pentsau eta erabagi eben 'Etxande-

rak' izena hain zuzen be. Urte berean Igorren jantzan egiteko eskaerea luzatu jakien Etxanderari eta baiezeko erantzunagaz abenduan igon ziran Lasarte aretoko eszenatokira.

Helburua ez zan andran taldea izatea, hasikeran lau gizon ibili ziran baina ez eben segidu. Andrazkoak euren nortasuna agertu behar ebela konturatu ziran orduan, hortik 'Etxanderak'. Autoridadea, andran izakerea, personalidadea adierazoten dau Etxanderak berbeak, presentziaren garrantzia marketako berbea dala azaldu dabe taldekoak.

Ezaugarri polit bat be badaukiela dinoe andrak, adin desbardinak; izan be, 25 eta 60 urte bitarteko andrazkoak batuten dira, astero astero, jantzan eta jantzeari ekiteko.



DIMAKO HIZKUNTZA PROIEKTUA

Dimako eragileak Hizkuntza Proiektua partekatu dabe

Ikasle Euskaldun Eleaniztuak Proiektuak herriko Keixako Hegoak, Dantza taldea, Pelota Eskola, Dimnasioa, Abizarie, Dimesten, Igitie, Haur Eskola, Eskalada taldea, Gaztelekua, Jubiladuak, Jai Batzordea, Liburutegia, Kantu bat gara taldea, Guraso Elkartea eta Udalaren ekarpenak jaso dauz, martiaren 9, 16 eta 23an egindako lan saioetan. Bertan egindako hausnarketen kontakizuna emon dau jakitera Dima-Ugarana Herri Ikastetxeak.



Erredakzioa

Jentarte globalizauan bizi eta aldi berean euskera indartuteko errokeari erantzuteko sortu zan proiektua. "Euskal Hezkuntzako partaideok, eta jentarte orohar, erroka handi baten aurrean aurkitzen gara. Mundu globalizau eta komunikazio-teknologiaren garai honetan, euskal umeak eta gazteak abiada bizian aldatuten dabizen biziteko era eta beharri erantzuteko zurrunbiloan bete-betean murgilduta gagoz. Ondorioz, argi esan daiteke norbanako modura zein jentartean garatzeko bitartekoak eta prestakuntza bera be, bere zentzu osoan, zinez konplejua bilakatu jakula. Beraz, konplejutasun horri zelaz erantzun dogu gakoa, erroka" dinoe

Dima-Ugarana Ikastetxeok.

Egoera horrek zuzen-zuzenean eragiten dau hizkuntzen eremuan, eta norbanako eleaniztun eta jentarte kulturantz horretan, "euskaldunoi bertoko hizkuntza eta kultura dogun heinean, geure ekarpena egitea jagoku jentarte hori aberasteko eta aldi berean bizi-irauteko, euskaldunok euskaldun modura biziraungo badogu behintzat".

Euskera ardatz, hizkuntzetan kompetentzia komunikatiboa lortu eta garatzeko, hizkuntzaren ezagutza eta erabilera funtsezkoa da, umeen garapenean zein geure kulturatik mundura salto egin eta eleaniztasunean, kultur aniztasunean, euskaldun eleaniztun hezi, hazi eta garatuteko.

Gure testuinguruan nagusitzen

dan hizkuntza gaztelania dala jakinda, ikastetxean indartu behar dan hizkuntza euskera izango da. Hizkuntza proiektu batek, proiektu eleaniztun batek, hizkuntza guztiak hartu behar ditu kontuan. Zentzu horretan, ezinbestekoa da plangintza integral bat jorratzea, "non hizkuntzen egoera eta estatusak, hizkuntzen glotodidaktika, hizkuntzen soziolinguistika, psikolinguistika eta hizkuntzen soziopolitika kontuan hartu beharreko ardatzak izango diran. Beti be hizkuntzen arteko plangintza inklusibo baten norabidean eta euskera egoera minorizaduan eta oindino arriskuan dagoan hizkuntza bat dala jabetuta".

Gaiagazko ardureak, ikastetxean konpromiso eta hausnarketa prozesu bat zabalduera eroan eban; gure errealitate sozio-linguistikokoaren inguruko datu bilketa eta diagnosi bat egitera. Hortik atera ziran ondorio, helburu eta lehen-tasun batzuk finkatuteko beharrak.

Norabidea, iparraren garrantzia

Helburuan adostasuna dago. Proiektukideak ikaslea gaitu gura dabe testuinguru desbardinetan hizkuntzagaz modu eraginkorrean komunikatu daiten, egoera desbardinatara egokitu eta gaitasun jardun dagian.

Bideak askotarikoak dira, baina Diman, alkarlanean, talde lanean, barrikuntza metodologiko eta didaktikoak bereganatuz, partaidetzan oinarritu dira ume baktxaren garapena lortzeako. Horretarako, euskerearenganako hurbiltasun afektiboa behar dala dinoe, atxikimendua eta identifikazioa; "eta umeak persona eta espazio jakinakaz egiten dauan hizkuntza identifikazioa kontuan hartuz, komunitadea inplikatu behar da". Lan hori guztia ahalik eta ondoen egin ahal izateko hainbat arlotan eragin beharra ikusi eben: taldeen antolaketan, motibazioan, metodologian, irakasleen prestakuntza teknikoan, helduen hizkuntza erabilera eta aisialdian edo-eta umeen bizi eremuan batez be. Horretarako hezkuntza komunitadearen esku-hartzea bilatu eta indartu ez ezik, lankidetzan jardutea ezinbestekoa iruditu jakien; hizkuntza jakieretan eragiteko, edo hizkuntzen ikas-irakaskuntza aktiboari, komunikatiboari eusteko eta prestakuntza jasoteko edo euskerearen erabilerean aurrera

egiteko helburuakaz.

Testuinguru honetan sortu zan bere egunean Kontseiluaren eskariz, Hezkuntza eragileak adostutako proposamena Sortzen-en eskutik: Ikasle Euskaldun Eleaniztunak Hizkuntza Proiektua, hain zuzen be.

Euskeratik eta euskal kulturatik abiatuta, hizkuntza estruktura sendoa euskeran eukitearen garrantzia eta eleaniztun izatearen abantailaz jabetuta, curriculum euskeraz garatzen dau Dima-Ugarana Ikastetxeak eta, hizkuntzaren ezagutza eta erabilera funtsezkotzat jotzen da umeen garapenean. Izan be, ondoizateak eta integrazino sozialak hizkuntza eta kultura behar ditu. "Danok emon behar dogu eredu, hezkuntza komunitade osoak bat eginda jakierak hobetu eta erabilera areagotzeko". Eta hizkuntzen egoera kontuan hartuta hizkuntza jakieretan eragiteko, danak norabide baten egin behar dabe lan, "komunitadeko sektore edo eragile baktxak, bere zeregin eta erantzunkizunetatik".

Hizkuntzen egoerak ez diranez bardinak, hizkuntza plangintzak jakieretan be eragin beharko dau; eta jakieretan eragitea, ezin da eskolatik bakarrik egin. Komunitade osoak konpromisoa hartu behar dau helburua lortzeako; hau da, ikasleak ahalik eta gaitasun komunikatibo egoki eta aberatsenak garatu dagiazan. Eta horretarako ezinbestekoa da norabide baktxerako alkarlana.

Hiru zutabe: Ikastetxea, Gurasoak eta Udala

Orduan, hezkuntza komunitade osoari aukera aurkeztu eta aurrera eragiteko ebatzia hartu eben. Behin ikastetxea, Gurasoak eta Udalak osotutako hiru zutabeen arteko adostasuna erdietsi ostean proiektuan murgiltzeko prozesua adosteari ekin eutsien ikastetxe, Sortzenek eta Elhuyar Aholkularitza taldeak.

Lana bideratzeko egitura eta funtzionamentua zehaztuta, besteak beste, Jarraipen Batzordea eta Herriko Hizkuntza Batzordea sortu ziran. Jarraipen Batzordearen lana zan, prozesu osoari jarraipena egitea, fase baktxean ekarpenak egitea, sensibilizazio saioak zein diagnostikorakoak antolatzea, Proiektuaren diseinu eta logotipoa egitea, komunikazio planaz arduratzea, eta, beharrezkoa izan ezker, beste edozein neurri edo

Bideak askotarikoak

dira, baina Diman, alkarlanean, talde lanean, barrikuntza metodologiko eta didaktikoak bereganatuz, partaidetzan oinarritu dira ume baktxaren garapena lortzeako

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarroa
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Hilabeteko Zerbait 100
R.P.S. 31/06

Kili~Kili
Arope eta Puztikultura
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel.: 94 673 43 51

Olaetxe
Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gubitua
Begi tontsinoak
Lentilen adaptazioak
Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel.: 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tinoia. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

proposamen bideratu edo hartutea. Herriko Hizkuntza Batzordearen arduraren gelditzen zuten prozesu osoa herrian gauzatzeko plangintzea, ebatziak adostea eta bitarteko eta neurriak bideratzea.

Proiektua aurkezteaz gain, motibazio eta sensibilizazio saioak egin ziran ikasle, guraso, irakasle eta herriko eragileak. Gero, eskolan zein herrian eginda egozan diagnosi ikerketak, gehi Klusterrak egindakoak kontuan hartuta, diagnostikoa osotutako galdetegi bat prestatu eta herrian zabaltzeko zabaldu ziran herriarren eretxiak jasoteko. Lan haretatik ondorio, helburu eta lehentasunak finkatu ebezan ondoren.

Jarraian, beste fase bat hasi zuten. Alde batetik, Hizkuntza Proiektua izango danaren diseinuan Marko Teorikoa definitu eta zehazten joan; eta bestetik, lehentasun ildoetan herrian, ikastetxean pauso praktikoa planifikatu eta egiten hasi.

Informazioaren garaian, informazioa zelan tratatu

Horretarako hausnarketa, talde lana eta metodologia behar dirala eta interakzioetan dagoala gakoak dinoe. Euskal Hezkuntza Sistema osoaren xedea euskal herritarren jentartean partaidetza aktiboa izateko eta bizitzan modu eraginkorrean moldatzeko gai izan daitezela trebatzea dala kontuan hartuta, eta gaur egun giza interakzioen kontestu global baten bizi garala jabetuta, begibistakoa da guztiz aldatu dirala ekoizpen moduak, konsumitzaileak, komunikatuak, egin, sentidu edo pentsetako erak. Ondorioz, egoera horrek, ezinbestean, ikasketen prozesuetan be beste egiteko era bat eragin behar dau lagundutako egoera ezegonkor horretan bizitzen, aniztasun eta konplexutasun horretan ikastera ikasten, eta ikasketak autoerreguletan, besteak beste. Egungo eskolearen zeregina da, "ezagutza bitalak eta berauek zelan aplikatu izan behar dau, eta desbardintasunen aurrean funtzio konpensatorioan aportatzea". Baita hizkuntzen inguruko ardura eta erronketan be.

Helburu eta lehentasunak

Honek guztiak, euskal hiztunen eleaniztunak helburu, eta egungo errealdaren ezaugarri eta erreferentziak kontuan hartuz, helburu eta lehentasunak markatzera eroan ebezan. Lehentasunok, konpetentzietan oinarritutako hezkuntzaren ikuspegi inklusiboaren bidean hizkuntza eskakizunak erantzutea; hizkuntzen irakaskuntzarako metodologiak eguneratzea, baita gelaz kanpokoak zein asialdikoak; euskera eskola komunitatean txertatzea eta aldaketa beharri

eta eskaera barriak erantzuteko trebatzea umeak; euskera komunitate identitatearen euskari eta kohesino tresna bilakatzeko; euskeran eta euskal kulturaren ardatzuta, kultur aniztasunari eta hizkuntz aniztasunari erantzutea; Hezkuntza komunitate osoaren partaidetza aktiboa sustatzea eta hezkuntza barrizaille, etenbarik ikasten ikasteko, aldaketarako, barrikuntzarako eta etenbako hobekuntzarako hezkuntza-sare konpartidu modura jardungo dauan ikastetxea sustatzea.

Honek guztiak, prozesuari aurre egiteko lehentasuneko zeregin eta erronka barriak garatzera eroan zituan partaideak. Alde batetik, ikastetxearen markoan, irakaslearen prestakuntza eta formazioan trebakuntza ildoak jorratzera; bigarrenik, umeen inplikazioan, umeen ikuspegiari bide emotea kudeaketa, planifikazio eta erabakitzeko prozesuetan, eurak be eragile aktibo bilakatzeko; hirugarrenik, helduen hizkuntza jarkeren inguruan gogoeta prozesu bat herriarren artean zabaltzea; eta laugarrenik, eta azkenik, udal administrazio eta zerbitzuen hizkuntz jardueraren gaineko erronkak ezartzera.

Irakaslearen prestakuntzari jagokonez, hizkuntzen didaktikarako oinarriak finkatu ebezan: testu generokako irakaskuntzea, hizkuntza eta edukiak buztartzeko beharra eta alkarrekintzearen garrantzia ikasleentzako jakintzak "aldamiatzeko" garaian, beti egoera errealeak planteatuz. Ondorio nagusia, irakasleentzako alkarrekintza moduetan formazioan sakondu behar zala izan zan. Formazioaren ikuspegitik, erispide eta estrategiak hornidutea da xedea.

Momentu honetan hizkuntza proiektuaren txostena bera azken ebatziak eragileak zehaztu eta txostena idaztean ipini da fokoa.

Irakaskuntzako metodologia aldatu beharra

Partaideen eretxiz, "eskolak asko mugatu dira idaztera eta idaztera, irakurri eta idaztera, eta ikusten ari gara ikasleak ez dirala ezer azaltzeko, argudiatzeko. Argi dago ahozkotutasunak bere lekua izan behar dauala, pentsamenduak eregi behar dira. Irakaskuntzan metodologia aldatu egin da edo aldatu egin behar da. Komunikazioa izan behar da erronka, ikasleentzako beharriak antzeman eta diseinatu erantzunak emateko. Hitzegiteko guneak sortu behar dira".

Umeen inplikazio eta ahalgintza sustatzeko, eskolan praktika egokiak bideratzen hasi ziran, umeak eurak hainbat jardura eta ekimenen kudeaketa eta planifikazioa eginaz. Herri mailan, Herri Hezitzailearen prozesuan murgiltzea ebatzi zan.



Ugarana eskolan egindako saio bat.

Lerro honetako ildo nagusiak aisialdi parte hartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra garatzea dira. Lan horretarako oinarriak be finkatu dira: euskera eta euskal kultura, haurtzararen kultura, ume eta gaztetxoentzako aisia, balio hezitzaileak, eta partaidetza, hain zuzen be.

Prozesu honek Dimesten (Dima amesten) mobimentua sortu arazo dau herrian eta 2017 urterako "Gure lurra" gaiaren inguruan, urte osorako jardura eta programazioa martxan da. Begirale eta langileen taldeari laguntzeko talde motor bat be sortu da. Helduen erabilera dala-eta, 2016an, hizkuntzen inguruan hainbat tailer eta gogoeta saio egin ziran Topaguneko aholkularitzapean. Diman euskerearen gainean dinamika barri bat martxan ipini gura da, eta horretarako, herritarren partaidetza bilatu da, eretxiak jaso eta iparra marketako. Gogoetaz gain, sensibilizazio tailerak eta transmisioa lantzeako ekintzak egin dira. Ondorio nagusia, euskaltzaleen konpaktazioaz gain, herri mailan jardura batzuk burutzeko, eta Abizarietara euskera alkatara sortzea izan dira.

Udala eta administrazio munitario jagokonez, Dimako Udala UEMA, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kide egin da, udal administrazioan be "Euskaraz bizi gura dogu" ildoan daukan eragin eta garrantziaz jabetuta.

Ikasle Euskaldun Eleaniztuak Hizkuntza Proiektua, dokumentu dinamiko eta etenbako hobekuntzarako tresna gisa ulertuta, emoitak emoten hasi da, batez be irakaslearen prestakuntza ildoan eta "komunitatearen partaidetza helburu komunaren mesedetan, hau da, gaiari erantzuteko adostasun eta akordioetara heltzeko ahalegin eta borondate partekatuetan. Izan be, talde lana eta metodologia mailako emoitak ez ezik, komunitatearen kohesino eta beraren parte hartze aktiboa ditu zutabe eta erronka" dinoe ikastetxetik.

Herriko alkatetako martiko saioetan

Umeen hizkuntza estruktura sendoak eragiteko, eleaniztasunera euskeratik saltoa emateko, jarkeretan eragiteko eta ongizate eta kohesinoarako hizkuntza tresna eraginkor, baikor eta afektiboa izateko danen eredu beharrezkoa da.

Holan, egindako bidea biribiltzeko, 2017ko martiaren 9, 16 eta 23an egindako saioetan txostenaren ebatzi nagusiak jarri ziran mahai gainean, aurrera begirako norabidea, kriterioak eta erabakiak zehaztuteko asmoz. Bertan, Keixako Hegoak, Dantza taldeak, Pelota Eskoleak, Dimnazioak, Abizarietara, Dimsten-ek, Igiteiek, Haur Eskoleak, Eskalada taldeak, Gaztelekuak, Jubiladuak, Jai Batzordeak, Liburutegiak, Kantu bat gara taldeak, Guraso Elkarteak eta Udalak hartu ebezan parte.

Lehenengo saioan, Hizkuntza proiektuaren, prozesuaren, ibilbidearen laburpena eta eskolabizitzako hizkuntza zehaztu ziran. Partaideen arabera, "lehen umeak hizkuntza zuzen bat heldu arazotea zan kontua baina orain euskeraz egitea nahikotzat jotzen dogu. Gaur egun errealdaren beste bat da. Hizkuntza erabilteko espazioak sortzean dago gakoak".

Bigarren lan saioak, zerbitzuak, eremu pedagogikoa eta jarkerak

izan ebezan aztergai.

Zerbitzuetan, langile euskaldunen premia azpimarratu zan eta eremu pedagogikoan, metodologietan eraginkortasuna eta lotura afektiboa indartu beharra, besteak beste. Jarkeren esparruan, euskalkiaren garrantzia.

Atzenengo saioan, herriko eragileak euren aportazioa eta konstatazioak mahaigaineratu ebezan. Guztiak sensibilizazioa ezinbestekoa ikusten ebezan, beharriak konpartidutako, marko kontzeptualak norabide bateratuan buztartzeko, preminazko beharriak identifiketako, lotura afektiboak sortu eta pausu praktikoa emateko. Euskerearen erabilera eragitea azpimarratu zan eta hiztun bat galdu ezker galera handia dala esan ebezan; hizkuntzak ez dirala bakarrik komuniketako, transmisioa behar dala. Bizi ardatza izan behar dauala euskereak, belaunaldien arteko hartu-emonen sendotu behar dala eta euskera eta euskal kultura bultzatzea dala erronka, ondorioztatu ebezan beste gauza batzuen artean.

Alkatetako guztien entzun ostean, konzentrazioan eta erabilera dagoala gakoak ikusi zan. Aurrera begira, kultura zelan sustatu eta curriculum-ean kulturearen erabilera pisua emateko beste lan saio monografiko bat egiteko aukera mahai-gaineratu zan.

AREATZAKO PISZINETAKO ALDAMIN TABERNA ETA JATETXEA ESLEITZEKO PROZESUA ZABALIK

Aire zabaleko igerilekuan, Areatzan,
Gorbeira igotzeko bidearen parean

Oinarriak: www.areatza.net

Eskaintzak aurkezteko epea: maiatzaren 10era arte



MARTXEA

Zeanurín, errotarik errota

Maiatzaren 7an izango da Zeanuriko Erroten XII. Ibilaldia.



Olabarriko errotearen antepara.

Jon Urutxurtu

Maiatzaren 7rako prestatu dau Joko Alai alkarteak 2017ko Zeanuriko Erroten Ibilaldia. Aurten hamabigarren edizioa beteko dau oinezko marxa honek eta antolatzaileak adierazoten dabenez helburuak hasikerako berberak dira: "alde batetik, heritarrai zein kanpotik hurreratzen diran bisitariari Zeanuri eta bere auzoak ezetutera emotea; bestetik, Zeanuriren historian errotak izan daberen garrantzia ezetu arazotea eta atzenik, domeka goiza natureagaz hartu-emonetan eta kirola eginez pasetako aukerea eskeintzea". Ez dira gitxi, izan be, herri honetan ezagutzen diran errotak edo erroten arrastoak, guztira hamazortzi, danak hidraulikoak. Ibilbidean zehar bederatziren ondotik igaroko dira ibiltariak eta hirutan —Errotabarrin, Ibargutxin eta Olabarrin— sartu-urtena egiteko aukerea izango dabe.

Ibilbide bi: luzea eta laburra

Ibilbide bi prestatu dabez antolatzaileak, bata luzea, 18 kilometrokoa, eta bestea, laburragoa 12 kilometrokoa, jan-edana bananduko dan lekutik helmugara zuzentzen dana.

Urtekerea herriko plazan izango da, goizeko 09:00etan; plazatik, udaltxearen aurretik, abiatuz eta Altziber eta Errotabarrin —2015ean zaharbarritu eben Manterolatarrak eta sartu-urtena egin ahal izango da— ondotik

pasau ostean, Undurragako urtegiaren ertzetik jarraituko dabe partehartzaileak. Urtegia atzean itxi bezain laster Barrengoerrota aurkituko dabe, Beretikora errekatxoaren ertzean. Agarre izeneko baserrien ingurutik aurrera eginez, Undurraga auzunera jeitsiko dira Ibargutxiko errotarako bidea hartzeako; hemen, atek zabalik izango dira, eta gura dabena kuku bat egin eta errotea lanean ikusi ahal izango dabe. Ibargutxitik Lanbreabeko errotara, eta hemendik barriro Undurragako urtegiaren ertzetik ekingo deusie bideari —oraingoa beste aldetik—; presatik 100 metro atxina, Alkiberren, indarrak barrizeko jan-edana bananduko dau Gastronomía Cantabricak. Aurrerantzean, lehenengo Otzerinmendi auzunean eta gero Uriben sartuko dira ibiltariak, eta Intxaurbeko, Axpeko eta Zulabargo erroten ingurutik igaro ostean, atzen kilometroa beteten hasiko dira; helmuga baino 300 bat metro lehenago ibilbideko azken errotea azalduko da, Olabarrikoa, eta bisitetako aukerea izango da, Zeanuriko plazara heldu eta ibilaldiari amaierera emon aurretik.

Ibilbidea burutzerakoan, 18 kilometro eroango dabez oinetan ibiltariak, baina ziur ziteari erantzuteak mereziduko deusela, erroten ondare historiko-etnografikoa ezagutzeaz gain, udabarrian naturak azaltzen dauan koloreen sinfoniaz gozatzeko aukerea izango dabe eta.

Bisitetan diran errotak: Errotabarrin, Ibargutxi eta Olabarrin

Ibilbidean zehar bederatziren ondotik igaroko dira ibiltariak eta hirutan —Errotabarrin, Ibargutxin eta Olabarrin— sartu-urtena egiteko, errotea lanean ikusteko eta osotzen daberen atalak bertatik bertara ezetuteko aukerea izango dabe.

Errotabarrin errotea

Otzerinmendiko kofradian dago. 1785ean eregi eben. Zeanuriko errotarik barriena da. Hiru hari ditu. Errota honetan, presa eta antepara lotuta dagoz konporta baten bidez, kaltze barik. Zeanuriko gainontzeko errotetik bereiztuz, Errotabarrin errotetik kaltze bat ateraten da, urak errekarera bideratzeko. 1975eko apirlean itxi eutsan lan egiteari eta azken errotaria Andres Aldekoa "Ane" izan zan. 2015ean guztiz zaharbarritu eban Errotabarrin Manteola familiak.

Ibargutxiko errotea

Ipiñaburuko kofradian dago. XIX. gizaldian burdinolea izan zan. Gaur egun hari bi badaukaz be, hiru harigaz egin eban behar. Hirugarren hariak 1950erantza itxi eutsan lan egiteari.

1945ean errotearen azpiko aldean turbina bat eta generadore bat jarri argindarra ekoizten hasi ziran Ibargutxin, eta 1978ra arte gitxi gorabehera Altzua, Ipiñaburu eta Undurragako baserri batzuetara saltzean eben elektrizidada.

Ibargutxiko errotearen instalazioak guztiz zaharbarrituta dagoz, eta oindino, noizean behin etxerako garia edo artoa eihotzen dabe jaubeak; horrez gainera, generadorearen bitartez etxerako argindarra be ekoizten dabe.

Azken errotaria Gabriel Larrazabal izan zan. Gaur egun Bitoriano, Satur eta M^o Jesus bere seme-alabak dira jaubeak, eta errotea zaharbarritzeaz eta ingurua txukun-txukun mantentzeaz arduratzen diranak.

Olabarriko errotea

Ibarguren kofradian dago. Jatorriz burdinolea izan zan eta Zeanuriko patronoa zan Arriola familiaren jabetzea. Pujanatarren aurretik Manteola familiak ustiatu eban, 1898ko

zemendiaren 30ean, San Andres egunean, Isidro Pujana, errentari moduan, errotearen kargu egin zan arte. XX. gizaldiaren erdirantza Benigno Pujanak —Isidroren semeak— errotea erosi egin eutsen Arriolatarrari. Benignok errotari lanetan jardun eban 1995eko urri bigarrenaren 11n hil zan arte. Aitarene heriotzearen ostean, Fermin semeak errotearen zaharbarritze lanai heldu eutsen eta hor darrai gaur egun be jo eta ke apurka-apurka txukunduz.

Olabarriko erroteak hiru hari daukaz eta, gehienbat errazoi sentimentalakaitik bada be, betiko bezeroen eskariari erantzuteko lanean darraien Zeanuriko errota bakarra da. Benigno Pujana —herriko azken errotari profesionala— hildakoan, bere alaba Ana Mari izan da lekukoa hartu dauana, azken ehun eta hamaika urteetan familiaren ogibidea izan dan ofizioa bizirik mantenduteko.

Errotearen ondoan burdinolea-

ren arrastoak azaltzen dira eta gaur egun, hormak zaharbarritzen dabilz. Burdinolean erabilitako balantzea be errotan gordetzen da.

Errotagintzari buruzko gorabeherak ezetu gura dabezanak Olabarri hurreratzea baino ez daukie, Pujana familiak bisita gidatuak antolatzen ditu eta.

Zehetasunak

Izena emotea: 08:30etik aurrera, herriko plazan. 5 €.

Urtekerea: 09:00etan.

Errotak lanean: ibilaldiaren hasieran Errotabarrin erroten, erdibidean Ibargutxiko erroten eta amaieran Olabarrikoan sartu-urtena egiteko aukerea izango dabe ibiltariak.

Antolatzailea: Joko Alai alkarte.

Laguntzaileak: Gastronomía Cantabrica, Lankidego Lantalde, Zeanuriko Udala, Gorbeialde, Sagarna Txokoa, Zeanuriko Jubiladuen Taberna eta Arratiako Gurutze Gorria.

TXIRRINDULARITZEA

Italiako Giroko eta Frantziako Tour-eko apustuak

Erredakzioa

Aurten be, bigarren urtez, igazko arrakasta ikusita, Arratiko Zekorrek Rugby tabernak Italiako Giroko eta Frantziako Tourerako apustu-aulak antolatu ditu. Giroko apus-

tuak egiteko atzen eguna maiatzaren 6a, zapatua, 14:00etan izango da eta barikuko lehenengo etapea ez da kontuan hartuko. Informazio gehiago porraarratikozekorrek.blogspot.com helbidean edo tabernan bertan emongo dabe.

TXIRRINDULARITZEA

Julen Zubero desertuan barrena

Ainhua Duñabeitia

Gaes Titan Desert Mountain Bike Txapelketea hasi da eta bertan dago Julen Zubero lemoaztarra.

Marokoko Sahara basamortuan zehar ibiliko da Zubero, apirilaren 30ean hasi eta maiatzak 5ean amaituko dan kirol gertaera honetan.

Igazko erronka bete eta hobetu gura dau lemoaztarrek, igaz sailkapeneko bigarren postua lortu eban baita txapelketako etapa bat irabaztea be.

Basamortua eta munduko mendiko bizikletako txirrindulari onenak izango ditu arerio; halanda be, Zubero gogotsu ekingo deutso Titan Desert MTB Marathon-ari.

Gure ibilaldien laguntzaileak

Gure
ibilaldien
laguntzaileak

Euskalduna
kalidadezkoa
herrikoa

JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 673 62 37 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre

FUTBOLA

LemoaHarrobi mailaz igo da

Erredakzioa

Partidu bat baino ez danean geratzen, Lemoako Harrobi futbol taldeko denporaldi honetan sortutako Nagusien taldeak mailaz igotea lortu dau eta Lurraldeko Hirugarren Mailatik Bigarrenera igo da.

Hilaren 29an, Arlonagusian jokaturako partiduan herriko talde biak neurtu ziran derbian, LemoaHarrobi eta Lemoaberri, lehenengoak bat eta hutseko emoitzeagaz nagusitu ziran. Partidu baten faltan Lemoa bigarren da sailkapenean 58 puntugaz Cultural B taldearen atzetik. Gau

horretan jokariak kamioi batera igonda buelta emon eben herritik igoera ospatzeko.

Lemoaberri taldea osterataularen erdikaldean dago.

Denporaldi ezin hobea egin dau LemoaHarrobik. Izan be Kadete Mailako taldea be mailaz igo da eta Kadete Lehenengo Mailan jokaturako dau datorren denporaldian.

Kimu mailako torneoa

Apirilaren 22an, Kimu mailako (2005ean jaiotakoak) torneo antolatu eban Harrobik. Bertan, 12 talde batu ziran. Bizkaiko hiru: Harrobi, Arratia eta Athletic; Gipuzkoako beste hiru: Antiguoko, Eibar eta Real; Nafarroako bat: Osasuna; Baionako Aviron; Soriako Numanzia; Valladolid; Zaragoza eta Racing de Santander. Torneoa Zaragozak irabazi eban. Arratiak ez eban taldekako fasea gairiditu eta Harrobi finalurdenetan geratu zan.



FUTBOLA

Arratiako andrazkoak maila galdu dabe eta gizonezkoak aukera handiak ditue mailaz igoteko

Erredakzioa

Arratiako andrazkoak Euskal Ligan jokaturako dabe datorren denporaldian, aurten Bigarren



Argazkia: Javi Urola.
Olatz Rivera jokalaria Eibarren kontrako partidua amaitutakoan.

Mailan jokatu eta gero. Atzen partidu bietan lau puntu lortu dabezan arren atzenean ezin izan deusie mailari eutsi. Apirilaren 30ean jokatu eban atzen partidua Arratiak Eibarren kontra eta gatx eukan arren maila mantendutea, baegoan aukera txiki bat, baina horretarako irabaztea derrigorrezkoa zan eta atzenean bana amaitu zan partidua.

Dana dala, jokariak eurak uste baino hobeto ibili dirala eta datorren denporaldirako baliogarri izan daitezkezan gauzak ikasi dabezala dino Naia Totorika kapitainak. "Hasieran maila hau handi geraturako jakula uste genduan, baina atzen momentura arte mantenduteko aukerak euki doguz. Datorren urtean irabazi eta barriro bueltauko gara Bigarren Mailara. Gogor egingo dogu burrukan horretarako".

Gizonak igoteko hiru punturen faltan

Gizonezkoak osterataularen hiru partiduren faltan hirugarren dira sailkapenean eta partidu bat irabaztea nahikoa izango dabe Lurraldeko Ohorezko Mailara igoteko. Arratiak aukera ona eukan apirilaren 22an Igorren Iturigorriren kontra jokaturako partiduan hirugarren postua ia-ia ziurtatzeko, baina 0 eta 1 galdu eban. Apirilaren atzen astegoienean jokaturako partiduan osterataularen Arratiak 0 eta 1 irabazi eban Gurutzetaren kontra eta Iturigorri galdu egin eban. Arratia hirugarren da 59 puntugaz. Hurrengo partidu Abadiñoren kontra jokaturako dau Igorren maiatzaren 6an, 18:00etan. Arratiak dei egiten deutse jarraitzailei animetan joateko partidura, sarrerea doban izango da.

Arratiako Musika Eskola

IKASLE BERRIEN MATRIKULAZIOA

4 URTETIK AURRERA ETA ADIN MUGARIK GABE

MATRIKULA

Epea: maiatzean

- Infante kalea, 2. ARTEA

10:00etatik - 13:00 arte

Tlfonoa: 94 631 73 52

- ONLINE

* **BERRIA:** 2 eta 3 urteko umeak, **IGORREN** zentralizatuta, matrikulatu ahal dira. Aita edo amarekin joan beharko dira klasera.



- Matrikulazioa **ONLINE:**
www.arratiakomusikaeskola.eu

arratia.musikaeskola@gmail.com



KONTZERTUA

Akordeoi Orkestra Sinfonikoaren kontzertua Igorren

Erredakzioa

Bizkaiko Foru Aldundiak antolatuta, Bizkaia Hauspoka kontzertua eskeiniko dau Bilboko Akordeoi Orkestra Sinfonikoak maiatzaren 5ean, 20:00etan, Igorreko Kultur Etxean. Sarrerak Igorreko Jubiladuen bulegoan bananduko dira eta hartzaileak joateko konpromisoa hartu behar dau.

Kontzertua, Bizkaiko jubila-
du eta pensinodunen alkarteko
kideentzat da, doban. Bilboko
Akordeoi Orkestrak, Amagoia Lo-
roñooren zuzendaritzapean, pieza
herriko klasikoak joko ditu, tar-
tean euskal musikakoak, "bersino

eguneratu, arin eta parte hartzai-
lean".



ANTZERKIA

Zugan Ni proiektuko hiru antzezlan ikusgai Igorren

Erredakzioa

Maiatzaren 12an, 19:00etan, Igo-
rreko Lasarte Aretoan, Igorreko
talde bik eta Zornotzako batek
ikasturtean zehar prestatutako an-
tzezlan bana taularatu dabe. Igo-
rreko taldeen lanak *Azterketa* eta
10 urte dira. Bigarren honek Zugan
Ni proiektuaren 10 urteai egiten
deutso erreferentzia eta urteotako
lan onenen zatiak batzean ditu.
Zornotzakoak *Gero arte Mari Car-*

men izeneko lana antzetzuko dabe.

Orain dala 10 urte, nerabeak an-
tzerki mundura hurreratzeko Markeli-
ñe Konpainiak Zugan Ni proiektua
sortu eban. Ekimen honetan 13 eta
18 urte bitarteko gazteak hartzean
dabe parte eta Arratia Institutuko
ikasleak osotutako talde bi sortzean
dira ia urtero. Ikasturte amaieran,
sari banaketea eta proiektuan parte
hartu dabenak jaia egiten dabe. Aur-
tengo ikasturte amaierako jaia Zor-
notzan izango da maiatzaren 14an.



FILMA

Motxilaren umea filma
Arratian ikusteko aukerea

Erredakzioa

Kurkulluxetan Kultur Elkartean
Motxilaren umea film laburraren
zati bat Diman grabatu zan, Dimako
eskolan hain zuzen, eta ume pro-
tagonistea Maider Latatu dimozta-
rra da. Filma Bilbon estrenatu zan
martiaren 29an eta orain Arratiako
herri bitan ikusteko aukerea egon-
go da; Diman, maiatzaren 5ean,
19:00etan Abaro lokalean, eta
Zeanurin 20an, 19:00etan, Kultur
Etxean.

Rita Naveiraren zuzendaritza-
pean, Jose Angel Aramendi, Mai-
der Latatu eta Itziar Ituñok, ama es-
petxean 700 km.tara daukan ume
baten istorioa kontetan dabe. Film
pedagogikoa da, istorioa benetako
historia eta datuetan oinarrituta

dago eta umeen afektibidaderako
eskubidea eta amak hazita izateko
eskubidea aldarrikatzen dau.

Maider 11 urteko umea da eta
bere bizimodua besteen aldean
desbardi da sarri motxila hartu
eta ama bisitetako biare luzea egin
behar dauako. "Pelikulan, mo-
txileari emon gura izan deusagu
protagonismoa. Motxilaren umea
da eta ez motxiladun umea. Izan
be, motxileak umearen bizimodua
bideratu, mugatu eta markatu egi-
ten dau" azaldu deutso BEGITURI
Rita Naveira zuzendariak.

Pelikulan Dimako 25 ume ingu-
ru agertzen dira. Dimako eskolako
6. mailakoak eta "txikitxo batzuk".

Kurkulluxetan alkartean hi-
rugarren filma

Bilboko Kurkulluxetan alkar-
teak 17 urte daroaz, "ekarpen artistikoak
euseraz egiten, giza balioak bul-
tatzeko" Koldo Zelestino kidea-
ren berbetan. Orain arte hiru film
labur grabatu dabez. Lehenengoa,
Keinuka mugaz gandi Kubagaz
alkarlanean; bigarrena, *Dena ez
da futbola*, hau be Arratian gra-
bata, eta hirugarrena *Motxilaren
umea*, Dimako eskolan, Bilbon
eta Segoviako espetxe zaharrean
grabautakoa.

Motxilaren umea pelikulaz gai-
nera, Internetarako bideo bat be

prestatu dabe egileak, nagusai zu-
zendutakoa. Han, marrazkien bidez
eta *off* abots bategaz, hainbat datu
emoten ditue. "Hor azaltzen dogu
zenbat ume dagozan egoera horre-
tan, egoera horrek zelango ondo-
rioak dituan umearen garapenean
eta gero irakasle batek eta psiko-
logo batek azaltzen deuskue zer egin
daikagun eskolan eta gizarte-
tean problematika horren aurrean" dino
Naveirak. Gaia umeakaz landuteko
unidade didaktikoa prestatu dabe.

Orain, filma aurkeztu eta berbal-
diak eta mahai-inguruak emoten
dabilz. "Hemen Arratian, Diman eta
Zeanurin daukagu data zehaztuta.
Beste lekuetan oindino ez. Igorren
eta Lemoan be egingo da seguru
asko. Euskal Herriko uriburuetan
be proiektuak da; gitxienez Iruñea,
Gasteiz, Donostia eta Baionan. Bes-
te herri batzuetan be bai, Arranku-
diagan eta Laudion esate baterako"
dino Zelestinok.

Hilaren 15ean, Youtubera igo
eta munduko 100 zine jaialdi
baino gehiagotara bialduko dabe
filma. Baita Euskal Etxe guztietara
be. Pelikuleak bost hizkuntzatan
izango ditu azpituluak: ingelesez,
frantsesez, gaztelaniaz, portugesez
eta katalanera, hain zuzen.

Lan boluntarioa

Kurkulluxetan alkar-
teak "bere boltsikotik" finantziau dau filma.
22 minutuko pelikula hau egiten
4.500 euro inguru gastatu dabela,
lan guztia boluntarioa izan dala
eta inork ez daukala ezer kobratu
dino Zelestinok. Ezta Itziar Ituño
aktore profesionalak be.

URTEURRENA

Kiñu Gaztetxeak hirugarren
urteurrena ospatuko dau

Erredakzioa

Igorreko Kiñu Gaztetxeak hiru urte
beteko ditu eta hau ospatuteko
jaia antolatu dabe maiatzaren
6rako.

Eguraldi ona bada, Gaztetxe

osteko lorategian egingo daben
kopautxoagaz hasiko da jaia arras-
tiko 19:30ean. Gero, gaubean,
22:30etik aurrera, hiru kontzertu
egongo dira. Hasteko Eraso! metal
rock talde zarauztarrak, *Kaiolatik
ihes*, bere azken diskoa aurkez-



arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

Bizkaifisios SLk
bi zentro ditu
Fisioterapia Zentroa Igorre
Ellexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08

Andra Mari Klinika
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1 Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64

www.bizkaifisios.com

ZEKUTZE
JATETXEA

Sabino Arana, 24
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zekutzejatetxea@hotmail.com

Beer & Edariak s.l.

HEINEKEN ★ SOLARES

Polig. Mendizola, 7 48530 LEMOIA, Bizkaia
Tel: 600 480 830 fax: 600 250 717

ugatxa
talentua

Ugarana kalea, 8
48141 Dimia
T. 946 129 460

tuko dau. Ondoren, Guda Dantza
Bilboko ska talde gaztearen txan-
dea izango da. Honek be, euren
atzen lana, *Labarraren ertzean*
joko dabe Gaztetxean. Amaitzeko,
DJ Lorok animauko dau gaua. DJ
Lorok Kodigo Norte, Green Valley,
Rapsusklei eta beste hainbat talde-
gaz egin dau behar eta astero en-
tzun geinke Radio Vitoriako Aldape-
ko saioan. Reggae, Dancehall, Hip
Hop eta Jungle doinuakaz mobidu
arazoko ditu bertaratutakoak.

ANTZEZLANA

Olgetan egiteko garrantzia erakusten dau *Kaleko musikariak* ikuskizunak

Erredakzioa

Maiatzaren 6an, Txantxariak taldeak *Kaleko musikariak* ikuskizuna eskeiniko dau arrastiko bostetan, Igorreko Kultur Etxean. Lan honetan, olgetan hasteko proposatzen deutsee txantxariak ume, guraso eta irakasleai.

Istoriaren protagonista diran Mari Txipik, Arantxa Zabaletk, Antxon eta Txantxibiri Kaminok eta Braulio astoak, ia aitzuta egozan jo-

lasak eta jolas barriak ikasteko aukerea eskeiniko dabe. Izan be, euren ustez, jolasa biziten ikasteko modubat da. Jolasen bidez geure buruari helburuak ipinten ikasten dogu eta personen arteko hartu-emonak errezteko modua da, taldeak osotu eta trinkotzeko. Jolasa, ume eta gurasoen arteko loturak estutzeko bidea be bada; umeak eta gurasoak bizitzaren alderdirik atseginenez alkarregaz gozatuteko bitartekoa.



Kaleko musikariak ikuskizuna.

IKASTAROA

Zeberrioko Udaleko Berdintasun Sailak ikastaroa antolatu dau

Erredakzioa

Zeberrioko Udaleko Berdintasun Sailak, Ugao eta Arrigorriagakoakaz batera, hilekoaren zikloaren gaineko ikastaroa antolatu dau, 14 eta 50 urte bitarteko andrantzat. Estibaliz Urresolak eta Ane Uriartek dinami-

zauko dabe. Ikastaroa Ugaoko Jane Jauregian izango da maiatzaren 6an, 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 17:30era, Ilargiak J izenpean. Bertan, hilerokoaren zikloaren faseak personearengan daukien eragina landuko da. Udaletxean emon behar da izena maiatzaren 3ra arte.

DUNBA

Espezie inbaditzaileak

Igorreko Inazio Zubizarreta eskolako 6. mailako ikasleak

Zer aituten da espezie inbaditzaile legez?

Euren lekutik aterata leku barrietako bizitzara egokitu eta bertokotu diran animalia edo landareak dira. Baina, munduko biodibersidadarako bigarren mehatxurik larriena eurak bihurtu dira, arazo potoloak eta kalteak sortu arazoten dabez eta.

Arratian hainbat inbaditzaile dagoz, bat aitaturaren: erreko karramarro gorria. Amerikatik eka-

rritako espezie honen eragina dala-eta, Europako arrunta galzorian dago.

Beste bat, zebra muskuilua da. Ur gezatako molusku txikia da. Errusiako hego-ekialdeko aintziretan dauka jatorria. Handik gizakiak, gura barik, munduko beste gunetara eroan dau, eta espezie inbaditzaile bihurtu da. Ur hodiak trabatu egiten dauz eta arazo larriak dakar gure bizitzara eta horregaitik Uraren Euskal Agentzia arduratuta dago.

Vespa Velutina moduan ezagundari erlastarra be gure artean

ZINE KLUBA

Bonnie and Clyde filma Igorreko zine klubean



Erredakzioa

Maiatzaren 4ean, 20:00etan, Arthur Penn-en zuzendaritzapean 1967 urtean filmautako *Bonnie and Clyde* pelikulea ikusteko aukerea egongo da Igorreko Kultur Etxean, Igorreko zine klubaren eskutik.

Saso haretako Hollywood-eko aktore ezagunenetarikoa egin eben lan *Bonnie and Clyde* pelikulan: Warren Beatty-k, Faye Dunaway-k, Michael J. Pollard-ek, Gene Hackman-ek eta Stelle Parsons-ek beste batzuen artean. Gidoia Robert Benton eta David Newman-ek egin eben eta Oscar bi eta beste sari asko jaso ebazan filmak.

Filmak kontetan dau Bonnie Parker eta Clyde Barrow bikote delitugilearen istorioa. Depresino Handiaren sasoiaren, Bonnie eta Clyde bikote gaztea Ameriketako Estatu Batuetatik zehar bankuak lapurtu, jente apalari lagundu eta agintariak barregarri ixten ibili zan.

MUSIKEA

Idoia Kareagaren kontzertua *Musika Bakarrean* zikloan

Erredakzioa

AKKBk antolatutako *Musika Bakarrean* zikloko hurrengo kontzertua Idoia Kareaga txistulariak emongo dau David Nanclares gitarraistearen laguntzeagaz. Maiatzaren 13an izango da, arrastiko 20:00etan, Areatzako Udal Aretxean.

Idoia Kareaga, Barakaldoko Hala Dzipo Musika Eskolako fundatzaileetako eta zuzendaria da eta Bilboko Txistulari Bandan be jotzen dau. Kontzertuan, beste gauza batzuen artean, artzai kantak, Uriondo eta, tangoak joko ditu.

Hilaren 20an, Alejandro Aparicio

Almeriako gitarraistek zarratuko dau *Musika Bakarrean* zikloa. Aparicio, Almeria eta Madrilko konserbatorioetan ikasi eta gero, Herbeheretara joan zan Carlo Marchione-ren eskolara jasoteko. Maastricht-en masterra egin ostean, kontzertu ugari emon ditu solista moduan Belgika, Holanda eta Espainian.

Zikloaren helburua, maila handiko musikariak bakarrean ikusi eta entzutea da eta euren instrumentuen errekursoak erakustea. Aurten 3 kontzertu izango dira, klarinete, txistu eta gitarra kontzertuak. Apirilaren 29an, eskeini eban Javier Roldanek klarinete kontzertua.



LEHIAKETEA

Jaietako Kartel Lehiaketarako lanak bialtzeko epea zabalik

Erredakzioa

Lemoako jaietako Kartel Lehiaketarako lanak aurkeztu daitezke udaletxean bagilaren 9ra arte. Lehiaketan herrikoak bakarrik hartu daikie parte. "Lemoako

Jaiak 2017" esaldia agertu behar da kartelean. Sari bi egongo dira 175 eurokoak. Eskuz zein orde-nagailuz egindako kartelak onartuko dira, A4 neurrian. Kartelak egilearen sinadura barik aurkeztu behar dira.



Panpa lorea Lemoan.

dago. Asian dauka jatorria, itsasontziz etorri ei da eta bertako erleak jan egiten dauz.

Cortadella (panpa lorea) behor daukagu: lorategiak atondutako Hego Ameriketatik ekarritako



landare altua da. Sano indartsua da eta edonon hazi daiteke erre. Haize bolada batek lore horren haziak edonora eroan leikez eta horregaitik zabaltzen da arin-arin. Hau guztiau kontuan hartuta "jagon daigun geurea eta jaurti egin bestea".

DENPORA-PASA

IMAN OLATU

	1	2	3	4	5	6	7
1							
2							
3							
4							
5							
6							
7							
8							
9							

EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Nahaspilatsu. 2.- Letra bat. Ezen. Bokala. 3.- Indioaren sinboloa. Bokala. Zintzo. 4.- Golpe. 5.- Bada juntagailuaren laburdura. Musika nota. 6.- Balkoi. 7.- Emea ez dana. Letra bat. Arsenikoa. 8.- Letra bat. Birritan, Afrikako tanbor antzekoa izentetako onomatopeia. Letra bat. 9.- Tximurtsu.

GOITIK BEHERA

1.- Sortu, gauzatu. Lehiaketa bat irabazi ezkerre jasoko dozu. 2.- Konsonantea. Gris. Azken letrea. 3.- Errenioaren sinboloa. Musika mota bat. Aditz atzikia. 4.- Zeozer. Bits. 5.- Jaiko germaniarra, Lurraren antolatzailea. Uribildu. Meitnerioaren sinboloa. 6.- Bokala. Haragia. Sufrea. 7.- Osasuntsu. Lapurretan egin.

U	S	I	Z	I	6	X	N	Z	I	N
I	W	T	A	R	8	O	M	X	R	O
S	V	A	R	P	7	Z	V	N	I	I
O	L	I	L	P	9	N	I	V	V	S
E	R	E	B	A	5	N	V	O	O	S
O	N	A	R	U	4	I	O	N	I	I
N	E	I	N	E	3	S	O	X	I	Z
A	Z	E	E	Z	2	Z	I	I	V	I
I	E	R	E	B	1	I	E	R	E	B
1	2	3	4	5	6	7	8	9	0	1

Topau bizikleta batek daukazan zazpi atalen izenak.

A	L	A	R	R	A	S	E	G	A
D	A	O	K	E	P	N	I	O	N
E	B	E	G	I	K	O	T	A	K
B	A	L	A	U	S	K	E	R	A
I	L	U	A	M	E	R	R	A	Z
K	A	R	L	E	B	I	U	E	K
O	Z	K	I	L	A	K	Z	O	R
I	T	O	P	R	E	O	A	G	I
J	A	U	R	L	A	D	L	A	N
O	S	P	U	A	R	I	G	E	A
B	I	K	G	O	K	A	R	T	U
O	S	T	A	B	I	L	U	A	Z
E	D	A	B	I	R	K	A	K	O
G	O	K	A	L	E	Z	T	I	P
U	L	T	Z	E	N	U	R	A	K

**A
K
I
M
I
K
O**

Zorrozkiilo



umean moda
SEM
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten
dogu Bizarra egin eta buzkunduten dogu
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behe IGORRE

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behe IGORRE
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
TLF. 94 631 92 00

GARANTXE
Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIB ERDARAZ
Lehendakari Agirre 31
Tfnoa: 94 631 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@euskalnet.net

ZUZENBIDE
ASEGURUAK:
AUTOAK
ETXEBIZITZAK
DENDAK
ISTRIPUAK
BIZITZA...
ABOKATUAK:
ZUZ. ZIBILA
KONTSUMO ZUZ.
ADMINISTRAZIO ZUZ.
INGURUGIRO ZUZ.
AHOLKULARITZA:
LAN ZUZENBIDEA
ZERGAK
KONTABILITATEA
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behe IGORRE (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis
Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-49-54

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 80
e-posta: urrozul@euskalnet.net

AGUSTIN ELEXPE

Agustin Elexpek erretiroa hartu dau 39 urtean Igorren agoazil izan eta gero

Txakolindegia ondoan egoan eta bota zan etxean jaio zan Agustin Elexpe. Zulaibar amaitu eta gero Aralucen hasi zan beharrean trokelerian, Zornotzan be torneru ibili zan. Gero, "petroleru" beharretan ibili zan Elexpe, perforazioak egiten enpresa baten, Espainia guztian zuloak eginda dago petroleoa topetako. 1978an sartu zan agoazil Igorren, Jose Maria Otxoa alkate zala, aitak semea herrian egotea gura eban eta semeak jakin barik aitak emon eban bere izena udaletxean. Hasi zanean Isidro Bustinza eta bera ziran agoazil Igorren, eta udaletxean bertan bizi izan ziran. 2017ko apirilaren 21erarte egon da agoazil lanetan.

Ointxe dala dozena bat urte ingurutik hona be bi izan dira Igorren beharrean ibili diran agoazilak.

Rakel Aldekoa Diez

Urte honeetan guztietan beharra bardin antzekoa izan da ala agoazilaren eginkizunak aldatu egin dira? Zeintzuk?

Hemen urtetan ebana egin behar izan da. Aldaketak noski egon dirala sartu nintzanetik hona. Egin beharreko betekizunak handituz joan dira. Ni beti izan naz persona bat, gauza bat egiteko esan eta segiduan egin dodana, ze ostean esaten dozu, bihar egin-

go dot... eta onena momentuan egitea da. Eginkizunak aldatu dira bai, baina horreek be hainbat arinen eginda hobeto.

Beharra aldatu dala dinozu, eta gizartea? Zelangoak ziran orduko igorretarrak? Eta oraingoak, zelan definiduko zeunkez?

Herria asko aldatu da, mobimentua asko be handiagoa da orain. Gaurko egunean Industrialdea, Kultur Etxea, kiroldegia... dantarik dago Igorren, ez dauka zerikusirik lehenagoko Igorregaz,

zerbitzuen eskeintzea asko be handiagoa da. Zenbat eta gehiago euki, orduan eta gehiago exijiduten da. Exijente bihurtu gara.

Anekdotak piloa eukiko dozuz. Kontau bat edo beste.

El Lutek baino anekdotak gehiago daukadaz. Milaka. Asko kontau ezin diranak. Olabarrin terreno batzukaz, ikurriñeagaz, kotxea (Udaleko Panda) ostu eustenekoa...

Korrikan lekukoa eroan zenuen Igorreko Udalaren ize-nean.

Hasi nintzan ondo eta amaitu txarto (barreka). Orain dala urte batzuk Jose Ramon Bustinzagaz joan nintzan Lemoaraino, biok orduan be gazte. Aurten lekukoa eroanda emozionau egin naz, euskalduna bazara barruraino heltzean jatzu hori.

Orain dala bost bat urte be pregoia bota neban, eta hori be itzela izan zan, sano urduri egon nintzan, norberaren herria eszenaleku gainerik aurrez aurre ikuste hori... asko heldu jatan. Sentimentu oso politak dira. Horreek biak inoz ez jataz aitzuko.

Ziklo-krosa be inportantea izan

"Lehenengo gauzea burua asentetea da, sonanbulo baten moduan nago, ia egoera barrira egiten nazan!"



da herrian. Eskatu deustena egin dot beti.

Eta jubilau ostean zer? Zeintzuk dira zure planak?

Lehenengo gauzea burua asentetea da, sonanbulo baten moduan nago, ia egoera barrira egiten nazan! Gogoa daukagu biajeran bat edo zeozer egiteko. Ni bizi nazan lekuak be lagunduten deusta; San Kristobalen, etxean, beti dago zeozer egiteko eta.

Ezetu dozuzan alkateen gauza on bat?

Jose Maria Otxoa egon zan alkatez ni heldu nintzanean baina ez neban asko ezetu, ezin dot ezer esan.

Jose Ramon Bustinzari meritu handia emoten deustat, udaletxera heldu zanean ez egoan txakur handi bat be, baina handik hortik hemendik... ez zan udaletxean

asko egoten, beti ibiltzen zan leku batetik bestera parau barik.

Jose Miguel Iza behargin handia zan. Atea jotzen "numero uno", mundiala. Zita barik joaten zan ha lekuetara, atea jo eta aurrera.

Joseba Ipiñazar "Ipi" persona ona. Alkate ona eta persona ona.

Galder Olibares, neuretzako Galder "pasada" bat zan. Herri-tarra edozein lekutan: udaletxe barruan zein kanpoan. Persona oso zabala eta argia. Eta gauzak arpegira esaten ebazan.

Beinat Anzolak ez dauka zerikusirik Galderregaz, teknikoagoa da, baina hau be ona.

Alkate txarrik ez da egon. Bategaz edo besteagaz behar egitea diferentea zan baina danakaz ondo moldatu naz, ez daukat inoren kejarik.

ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

Basoak garbitzeko makineria

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKIRUA ETA SALMENTA